



BARREN
TOKIKOM



Martxoak 8 de Marzo

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

EL GOIBAR BERDINTASUNA



ASKE

IRAUULTZA

HERMANA
Y? SI
TE CRE?

JUSTIZIA

HERRIA NO

S V GAREN



GENDER DOESN'T
EXIST

E ZERRETA
NEBERRA
DITUSU

MAS
GU EZ GARA
MAS

SOKU MINORA
BARDU GEBENGO DA



DONNA ILEA PAINDEGIA

Tinte eta ile mozketak 40€tik aurrera.
Astearteak, jubilatuen eguna, 32€.

Pedro Mugurutz eta etorbidea, 9
Elgoibar
943 744 388



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61-62






- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

WTR85V90ES BOSCH
ARROPA LEHORGAILUA



529 €

- VarioSoft danborra, arropa delikatuena ere zaindu eta lehortzen du.
 - Erraz garbitzeko iragazkia
- Mikrofibra programa eta iragazgaitza ditu.
- Sentsore bidezko lehorte automatikoa
- A++ energia maila ● 8kg ● Bero bonba

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.







Elgoibarko Izarrak eta Ilunberri Achademiak
aurkezten dute

Aro modernoa:
Euskal Herria mundura zabaltzen
hitzaldi-zikloa

EMAKUMEAREN EGOERA
NAFARROAKO KONKISTAREN
TESTUINGURUAN

Amaia Nausia Pimoulier

Martxoak 11, eguaztena.
19:00etan.
Kultur Etxean.

   *Haijea* 

ANE BEITIA, Elgoibarko Udala

“Udalean euskararen erabilera areagotzen lagunduko digu Euskaraldiak”

Norbanakoekin batera, entitateak izango dira Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioko protagonistak. Datozen asteetan Elgoibarko entitate batzuekin egongo gara ariketaren atarian zer gorputzaldirekin dauden galdetzeko. Udalarekin hasiko gara. Elgoibarko alkatea den Ane Beitiarekin.



◆ Herritar moduan, zelan bizi izan zenuen Euskaraldiaren lehen edizioa?

Lehen aldiak ematen duen ilusioarekin bizi izan nuen. Sarritan *ahobizi* gisa jokatu arren, nik *belarriprest* rola aukeratu nuen, jakin badakidalako egoera batzuetan edo pertsona jakin batzuekin zaila egiten zaidala euskarari eustea.

◆ Bigarren edizioan entitateek era aktiboan parte hartzeko aukera izango dute: Udalak zelan erabakiko du parte hartu ala ez?

Aurreko edizioan bezala, Udalak Osoko Bilkuran hartuko du Euskaraldian parte hartzeko erabakia, eta erabaki hori Udalbatzak aho batez hartzeko itxaropena dut.

◆ Ariguneak sortzea da helburua. Udalean arigune asko sortuko diren esperantza daukazu?

Udala eta bere ardurapeko erakundeak kontuan izanik, hogeit hamar arigune inguru identifikatzea espero dugu. Udalean bi arigune mota izango ditugu, barne ariguneak eta kanpo-koak.

◆ Talde bakoitzeko kideek euskara ulertzea da lehen baldintza. Zein da Udaleko kargu eta langileen euskara ulermena?

Ia langile guztiek ulertu eta hitz egiten dute. Esango nuke %96 inguruk ulertzen dutela, eta udal ordezkari politikoen %94k.

◆ Eta erabilera? Askok erabiltzen al da euskara udal bulegoetan?

Lanean gero eta gehiago erabiltzen da euskara, bai dokumentuetan baita bileretan ere, baina, tamalez, kasu batzuetan, ahozkoan, erdararako joera nabari da.

◆ Beharrezkoa al da Euskaraldia Elgoibarko Udalean ere?

Bai, beharrezkoa da, batez ere, lehen esan dudana bezala, ahozkoan bereziki, langileon eta ordezkari politikoen hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilera areagotzeko.

◆ Zer emango dio Euskaraldiak Udalarari?

Udala eredu izan behar da euskararen erabileran eta Euskaraldiak erabilera hori areagotzen eta indartzen lagunduko

digu. Ekimen honetan ahalik eta arigune gehien aktibatzeko urratsak emango ditugu, eta ariguneak sortu ezin diren kasuetan, norbanako gisa, *ahobizi* eta *belarriprestak* aktibatzeko saiakera egingo dugu. Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izan daitezkeen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.

◆ Arigune izateko erabakia hartzea da bigarren baldintza. Udaleko kide eta langileek zelan erantzuniko dutela aurreikusten duzu?

Dagoeneko hasiak gara ariguneak identifikatzen, eta langileak jarrera ona erakusten ari dira.

◆ Zer garrantzi dauka Udalak Elgoibar bezalako herri baten euskalduntze-prozesuan? Garrantzitsua da eragile eta eredu izatea?

Udala herriko entitaterik garrantzitsuena izanik, handia da euskararekiko duen erantzukizuna eta eredu izan behar du, bereziki, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta babestu behar dituelako. Horregatik, udal barrura begira, ekimena zabaltzeko konpromisoa hartuko du, eta baita herrira begira ere sustatzaile lanetan aritzekoa ere. Eragile izatea ezinbestekoa da gure herrian euskaraz bizi ahal izateko aukerak bermatzeko.

◆ Herriko alkate zaren aldetik, mezurik bai herriko entitate eta herritarrei Euskaraldia ariketaren bigarren edizioari begira?

Herritarrei animatzeko esango nieke, euskaldunok euskaraz gehiago egiteko aukera izan dezagun, eta ikasten ari direnek eta ulertzen dutenek ere, euskaraz aritzeko aukera gehiago izan dezaten. Eta edizio honetan protagonista izango diren entitateei esango nieke anima daitezela edizio honetan parte hartzera, Euskaraldiak onurak besterik ez dizkielako ekarriko, eta bezeroek zein herritarrek asko eskertuko dietelako euren hizkuntzan aritzeko aukera ematea. Gainera, gaurko gazte gehienek euskaraz ikasten dute, eta denon erantzukizuna da gazte horiei lanean, aisialdian eta gizarte kontuetan euskaraz aritzeko aukera eskaintzea.



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Ahizpatasuna

Ni orotariko emakumeekin ahizpatuko naiz, igandean eta egunero. Irribarrea eskainiko diot eguneroko yihabari brotze ederra erantsi dionari; bere kasa antzerki saiora doanari; aldarria begiradan izan arren, plaza hartzen ez duenari; neure aldarria arrotz egiten zaionari errealitate ezberdin/paralelotan bizi garela sentitzen duelako; neure aldarriak amorrua sortarazten dionari, bere buruari baimentzen ez diona neuregan ikusten duelako; guztiei irribarre koloretsua eskaintzeko konpromisoa hartu dut.

Honela neure momentu eta bizipen

ezberdinak onartuko ditut, momentu bakoitzean gauden egoeratik hartzen baititugu erabakiak, ahal ditugunak, geure bizitza hankaz gora jarriko ez dutenak, geure burua ez-egoki gisa kategorizatuko ez dutenak, jasan ezingo ditugun gatazkak sortuko ez dituztenak. Honela, onartuko dut baditudala neure kontraesanak, neure beldurrak. Honela zuzentasunaren exijentzia arinduko dut.

Ariketa hau eginez sortzen zait niri ahizpatasuna, zarata eta itxurakeria guztien azpian badelako egia ukaezin bat: gizarte eta momentu historikoa konpartitzen dugun emakumeak badugula lotzen gaituen hari bat, bizi guztiko sentipenen pilaketak osatzen duten egia. Eta honegaitik gara bata bestearen ispilu, begiratu gaitezen!

Data aprobetxatu nahi nuke dei bat egiteko emakumeei bakoitzak ahal duen neurrian bere buruari lehentasuna eman diezaion, tarte bat har dezaten aspaldian egin nahian zebiltzan hori egiteko. Tximeleta efektua honela sortzen baita, mugimendu txiki askoren baturak egiten du iraultza.

“Dei bat egin nahi nieke emakumeei bakoitzak ahal duen neurrian bere buruari lehentasuna eman diezaion, tarte bat har dezaten aspaldian egin nahian zebiltzan hori egiteko”

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Sustatzailearen Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112 Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaldua Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaiola, Juan Luis Mugeriza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDALA ARUNTARIENTA</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
---	---	---

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Prentsan irakurri eta entzuteaz gain, beste askok ere esan izan dute bide bazterrak ez dituztela nahi edo behar beste tan garbitzen. Guk, ordea, eskertu nahi dugu baserrietara joateko bide aldameneta-ko belarrak eta sasiak moztzen Debemenen ardurapean egin duten lana.

Azkena moztu dutenean, gainera, iru- ditu zaigu sekula baino garbiago utzi dituztela bazterrak, gure baserrietara iristeko egon daitezkeen traba eta oztopoak saihestea erraztuz.

Eskerrik asko, beraz, Debemeni eta motozerrak eta makinak esku artean dituztela lanean jarduten diren langileei.

K. Garcia.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitzik argitaratuko.



Begoña Oñederra Ansola

"Garro"

2020ko martxoaren 3an hil zen, 76 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Angel Mari Casado Rebollo

2019ko martxoaren 4an hil zen, 56 urte zituela.

**Ezin ikusi, baina bai senti,
joan zinen arren, gure bihotzean beti zaude bizirik.**



I. URTEURRENA

Santiago Carrascosa Camacho

2019ko martxoaren 4an hil zen, 78 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
martxoaren 7an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.



Hamalau proiekturen artean lau gogokoenak aukeratzeko aukera eman zien Udalak herritarrei, baina bost bozkatuenak gauzatuko ditu

Azkue auzorako irisgarritasuna hobetzea (35.999 euro), Lekueder eta eliza arteko galtzada-harriak kendu eta zoladura aldatzea (45.999 euro), Urazandin neguko parkea egitea (50.000 euro), umeen parkeetan hobekuntzak egitea (50.000 euro) eta Aizkorri eta Urazandi arteko bidearen azken zatia berritzea (40.000) izan dira elgoibartarrak 2019ko aurrekontu partehartzaileen bigarren fasean lehenetsi dituzten bost proiektuak. Otsailaren 3tik 16ra bitartean, Elgoibarko Udalak aurkeztutako hamalau proiekturen artean lau gustukuenak bozkatzeko aukera izan zuten herritarrek. 11 egun egon ziren



botoa emateko eta herritarrek, guztira, 800 galdetegi bete zituzten (412 on line, 108 karpetan eta 280 postontzietan), baina 779 hartu dituzte aintzat, 21ek ez zituztelako eskatutako baldintzak betetzen. Udalak esana zuen lau

proiektu bozkatuenak egingo zituela eta 220.000 euro bideratuko zituela horretarako, baina emaitzak ikusita, 20.000 euro gehiago bideratuko ditu prozedura hautatutako bosgarren proiektua osorik gauzatzeko.

Olaizagako igerileku berrien proiektuak hainbat hutsune dituela ondorioztatu du Elkartu Federazioak

Olaizagako igerileku berrien proiektuak hainbat hutsune dituela ondorioztatu du Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Gipuzkoako Elkartu Federazioak. EHBilduk



eskatuta egin dute azterketa. Elkartutik ohartarazi dute ate guztiek 90 zentimetroko tartea utzi behar dutela pasatzeko eta kasu batzuetan 70 zentimetro besterik ez dutela. Era berean, komunetan 80 zentimetroko tarte librea behar dela esan dute, eta kasu batean 66koa baino ez dagoela. Aldageletan, berriz, 1,89 metroko zirkulu bat sartzeko aukera egon behar dela ohartarazi dute, eta Olaizagako proiektuan 1,50 metro baino gehiago ez dagoela banakako aldageletan. Horrez gain, beste aholku batzuk ere egin dituzte konketetako txorroten inguruan, zokaloen altueraren inguruan, aldageletako eserlekuei buruz, eta armairuek izan beharreko altuerari buruz, besteak beste.

Igerilekuko sarbideaz ere hainbat ohartarazpen egin dituzte, premisa batetik abiatuta: edozein pertsona izan behar dela gai igerilekua modu autonomoan eta beste inoren laguntzarik gabe erabiltzeko. Kasu honetan ez dute gabeziarik aipatu, baina bai lau aukera irisgarritasuna bermatzeko: alboko arrapala, traslazio bertikaleko plataforma, garabi polipasto eta bestelako garabiak. Azkeneko horretan garabiak kendu eta ipintzekoak izaten dira, eta erabiltzaileak eskatu behar du jartzea. Horrek bere autonomia mugatzen duela zehaztu dute. Hala, Elkartu Federazioak egindako zuzenketa guztiak aintzat hartzeko eskatu dio EH Bilduk Udal Gobernuari.

Douaa El Morabet eta Irati Uzkudunen orri markagailuak saritu dituzte

Martitzenean egin zuten Gotzon Garate Udal Liburutegian orri markagailuen lehiaketako sari banaketa, eta saritutako lanekin aurtengo orri markagailuak argitaratu dituzte. 7 urteko Douaa El Morabet eta 15 urteko Irati Uzkudunen lanak saritu dituzte. Maite Maiorak banatu zizkien sariak.



Stock Feria egingo dute bihar, zapata, Txankakua elkarteko merkatariek, Maalan



Stock feria antolatu du Txankakua merkatariek elkartek biharko. Maalako parkera aterako dituzte herriko dendariak euren produktuak eta azoka 10:00etatik 14:30ak arte egongo da zabalik. Ondorengo denda eta negozio hauek parte hartuko dute azokan: Arauri lurrindegia, Casa Astigarraga, Ecnarro Mertzeria, Ene Bada, Ferpi Modak, G&M jantzi denda, Goiara drogeria, Ipintza Margoak, Iria Moda, Iriondo Kirolak, Moma jantzi-denda, Muruamendaraz gozotegia, Nalai oinetakoak, Olaia Martinez estetika zentroa eta Uzuri optika. 14:00etan zozketa egingo dute, ohitura duten legez. Asteazkenean Txankakuako dendetan erosketak egin dituztenak sartuko dira zozketan, baina saria eskuratzeko saritutako txartelaren jabeak Maalan bertan egon beharko du zozketako unean. 600 euro banatuko dituzte.

Udaberriko oporraldirako izena emateko epea, zabalik

Astelehenean zabaldu zuten Elgoibarren Atxutxiamaikak eta Udal Ludotekak elkarlanean antolatu duten udaberriko oporraldirako izena emateko epea, eta martxoaren 15a arteko tartea egongo da apuntatzeko. 0-12 urte bitarteko aisia eskaintza diseinatu dute, eta eskaintza apirilaren 6tik 17ra bitartera burutuko da. Izena emateko hiru bide eman dituzte. Internetez, elgoibarkoizarra.eus webgunean sartuta, edo aurrez aurre. Elgoibarko Izarraren bulegoan (Aita Agirreko hirugarren solairuan) edo ludotekan. Urtero bezala, Udalak dirulaguntzak ere banatuko ditu. Eskerak martxoaren 20a baino lehen egin behar dira, elgoibar.eus web orrialdean edota Udalaren Arreta Zerbitzuan.

Altzolan zuntz optikoa jarriko dute eta Albitzuri industrialdean hainbat hobekuntza egin

Altzolan eta Albitzurin hainbat hobekuntza egitea onartu zuen udalbatzaren osoko bilkurak aho batez, otsailaren 26an. Batetik, hiru hilabeteko epean Albitzurirako bidean argiteria hobetzeko proiektua idazteko konpromisoa hartu du Udal Gobernuak. Era berean, urtea bukatu aurretik Albitzurira iristeko oinezkoen bidea egiteko proiektua garatzeko konpromisoa hartu du, irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko. Bestetik, Altzolarako zuntz optikoa eramateko prozesua hastea erabaki dute. Urtea bukatu aurretik hasiko dute Altzola auzoa txuritzeko prozesua. Udalak, Foru Aldundiaren bidez, Espainiako Gobernuari eskatu behar dion tramitazioari esaten zaio txuritzea. Operadora batek hurrengo hiru urteotan fibra sartzeko guneak zona gris gisa agertzen dira, eta horiek zona zuri katalogatu behar izaten dira, lanean hasteko. Ez da Altzolarako aurrekusi duten obra bakarra, hala ere. Izan ere, hilerrian eskudela ipintzea ere adostu zuten eta obra hiru hilabeteko epean amaitzea. Era berean, Deba ibai bazterreko petrila konpontzeko eskaera tramitatuko dio Udalak URA Agentziari, "premiatuz eta hamabost eguneko epean". Eta azkenik, zarataren maparen kronograma zein den jakiteko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin



harremanetan jartzea ere adostu zuten.

Guzti horren harira, EHBildutik adierazi dute "lehen aldiz" onartu duela legegintzaldi honetan Udal Gobernuak hainbat konpromiso hartzea. "Elgoibartarren bizi-kalitatean eragina izango duten hainbat konpromiso hartu ditu Udal Gobernuak EHBilduren ekimenez. Konpromiso horiek biltzen dituen bi mozio aurrera ateratzea lortu delako azken osoko bilkuran. Erantzukizunean oinarritutako oposizio eraikitzailea egiteko konpromisoa hartu zuen EHBilduk eta orain emandako urratsek erakusten dute gure lanak eragin zuzena daukala elgoibartarren bizi-baldintzetan".

▶ ELENA URIGOITIA

TERAPEUTA ETA EMAKUMEENTZAKO TAILERREN
GIDARIA

Elena Urigoitia (Elgoibar, 1967) gizarte langilea da, eta azken urteotan emakumeen ahalduntzean dihardu lanean. Hamar bat urte aritu zen lanean genero indarkeria jasan zuten emakumeei laguntzen Foru Aldundiaren zentro batean, eta lan horrek "eragin nabarmena" izan zuen bere bizitzan. Barne lanketa bati ekin zion orduan. Barrura begiratu zuen, eta bizitzaren zentzua bere barrenean bilatzeari ekin zion. Urte asko eman ditu Elgoibartik kanpora, baina bere bizitzak sorterrirako norabidea hartu zuen berriro. Gaur egun emakumeekin egiten du lan, eta herriz herri ibiltzen da baita ere hitzaldiak eta tailerrak ematen. Beldurrak gaingitzen laguntzen die, beraiengan sinisten, beraien burua onartzen eta maitatzen. Bere tailerrei buruzko informazio guztia www.mujeresconectandoconsuesencia.com blogean aurkituko duzue.

- AINHOA ANDONEGI -



"Garenarekin konektatu behar dugu emakumeok, eta gugan sinistu behar dugu"

◆ Emakumeak ahalduntzen egiten duzu lan. Zeintzuk dira gaur egun emakumearen arazo nagusiak?

Konfiantza falta, gai ez dela sentitzea, ikusia izateko beldurra, merezi ez duela sentitzea... Niregana etortzen diren asko konfundituta etortzen dira, kulpa sentimendua dute, lanean ez dira baloratuak sentitzen, bikotekidearekin edo seme-alabekin arazoak dituzte, atsekabetuta, frustatuak eta haserre sentitzen dira...

◆ Noiz eta nola hasi zinen emakumeen esparruan lanean?

Bartzelonan bizi izan nintzen urte askoan, eta esportazioan lan egiten nuen enpresa batean. Baina lan hura ez zen nik uste onena. Gizonezkoen mundua zen, eta emakumea erabat gutxietsita zegoen. Ardura postuetan gizonak zeuden, eta gure soldata baxuagoa zen. Lan hura ez zen niretzat eta utzi egin nuen. Gizarte Langile ikasketak egin nituen, eta gero genero indarkeriarekin lotutako gradua ere ikasi nuen. Ama izan nintzen han, eta

aitortzen dut niretzako amatasuna oso esperientzia polita izan zela, baina ez nuen nahi mugatu nire bizitza ama izatera soilik. Gu bizi ginen inguruan horixe zen emakumearen papera, ama eta etxeokandrea izatea, soldata gizonak ekartzen zuen etxera. Bizimodu hori berdintasunaren kontra doa erabat, dirua delako jaun eta jabe, eta horrek gizonari ematen diolako agintea. Nik ez nuen nahi hori niretzat. Umea txikia zenean banatu egin nintzen, eta berriz itzuli nintzen Euskal Herrira. Lan bila hasi nintzen, eta lehenengo Gobernu Kanpoko Erakunde batekin jardun nintzen lanean Bilbon, bizitarako beharrezkoak diren abileziak erakusten gurasoei eta irakasleei. Gero droga-mendekotasun teknikaria izan nintzen Ordiziako Udalean, gero gizarte langile izan nintzen eta ondoren tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako harrera etxe batera iritsi nintzen. Hamar urtez egon nintzen han, eta gai honi buruz neukan pertzepzioa erabat aldatu zitzaidan. Han konturatu nintzen emakumeak ez badu biktima sentimendua gainetik kentzen, sekula ez diola utziko biktima izateari, bere identitate bihurtzen delako.

◆ Zertan aldatu zen zure ikuspegia?

Tratu txarren inguruan Beberen *Malo eres* kanta abesten nuen lau haizetara eta horrekin identifikatzen nintzen. Baina konturatu nintzen emakumeok ez genuela ezer lortuko gizonaren kontra eginez. Konturatu nintzen kanpoan bilatzen genuen hori gure barruan aurkitu behar genuela. Maitasuna, lasaitasuna, balorazioa, errekonozimendua... Emakumeok sekulako indarra daukagu, eta sufrimenduari aurre egiteko kemena eta baliabideak daukagu. Geure burua zaindu behar dugu. Garenarekin konektatu eta gugan sinistu behar dugu. Gu ez gara biktimak. Historikoki biktima izan gara askotan, baina hori gaingitu eta gu geu garenarekin

konektatu behar dugu, guganako baldintzarik gabeko maitasuna garatuz.

◆ **Eta, zer gara gu?**

Hori deskubritzea da bizitzako bidaia. Gure burua ondo tratatzen ikasten dugunean, edozein tratatu txarren aurrean ezetz esateko gai izango gara. Emakumeoi kostatzen egiten zaigu denbora eta espazio propioak hartzea geure buruak zaintzeko, familiako gainerakoen eta senide ez diren beste askoren beharrak geurean aurretik jartzen ditugulako beti. Emakumeen tailerrak oso garrantzitsuak dira hori dena lantzeko, espazio segurua dira, gure "ahultasunak" epaitu gabe onartzeko. Gertatzen zaigun hori edo sentitzen dugun hori beste emakume batengan ikusten dugunean, edo beste emakume batek guk nekez kontatuko genukeen hori ahots goran kontatzen duenean edota normalean baztertzen ditugun geure ezaugarriak partekatzen ditugunean beste emakumeekin, gure barrua lasaitu egiten da eta sendatzen hasten gara. Konexio sakona sentitzen hasten gara eta bakarrik ez gaudela sentiarazten digu horrek. Elkarrekin indartsuagoak gara emakumeak bakarrik baino. Elkarri ulertu eta laguntzen diogunean indartsu egiten gara.

◆ **Zer eman dizu lan honek?**

Eskerrak ematen dizkiot bizitzari, maite dudana egiten dudalako eta nire autonomia lortzeko aukera eman didalako. Nire burua maitatzen laguntzen dit. Eta bestalde, nik ez dut isildu behar nire amonak edo birramonak eta euren garaiko emakumeek askotan egin behar izaten zuten bezala. Senarrarekiko dependientek ziren ekonomikoki, eta erabat menderatuta bizi ziren. Etxeko lanak eta zaintza senarraren soldata besteko garrantzitsua zen familiaren nukleoan, baina hori ez zen aitortzen. Askotan emakumea ez da aske izan, bere nahiak eta beharrak azaltzeko. Emakumeak zer nahi duen eta zer ez esateko eskubide osoa dauka.

◆ **Zer lanketa egiten duzu emakumeekin?**

Nire kontsultara zailtasun desberdinak dituzten emakumeak etortzen dira. Beldurrak gainditzeko, euren burua ezagutzeko, onartzeko eta maitatzeko gune apropos bat sortzen da, bai kontsultan eta bai tailerretan. Aurrera egiteko giltzak ematen dizkiet, baina lanketa beraiek egiten dute, euren barrutik. Horrek guztiak niri ere izugarri laguntzen dit. Ni gaztetan oso lotsatia nintzen eta neure buruarengan segurtasun falta handia neukan. Baina aldi berean konturatu naiz arazoei aurre egiteko indar handia dudala. Bizitzan izan ditudan egoera zailek erakutsi didate egoerei aurre egiten. Lehen gogorra nintzen nire buruarekin, baina orain, nire barneko umetxoari eskua ematen diot eta maitasunez gainditzen ditut oztopoak. Nire burua zaintzen ikasten nabil, eta hori konpartitzen dut beste emakumeekin.

◆ **Zer lantzen duzu tailerretan?**

Aurrez aurreko tailerretan, geure buruen kontzientzia handiagoa hartzeko espazioak sortzen ditugu azalpenen, ariketen eta

“Emakumeok elkarren arteko lehia alboratu eta elkar babestu behar dugu”

gidatutako meditazio-saioen bidez: Elkarri lagundu, lotsak eta beldurrak gainditu, elkar errespetatu... Ez baldin badakigu nor garen, zer behar dugun, zerk mugitzen gaituen eta zerk ilusionatzen... nola egongo gara gustura? Nola emango diegu geure buruei behar duten hori zer behar duten ez baldin badakigu? Nola zainduko gara eta nola maitatuko dugu

geure burua? Eta geure burua maite ez badugu, nola biziko gara?


Nola harremanduko gara? Nola maiteko dugu bizitza, nola bikotekidea, seme-alabak edota gure lanbidea? Barruan bilatu beharrean, falta dugun horren bila kanpora jotzen badugu nekez topatuko dugu, behar dugun hori geure barruan dagoelako kanpoan beharrean. Jungek hala zioen: “Kanpora begiratzen duenak amets egiten du, eta barrura begiratzen duena esnatu egiten da”.

◆ **Mujeresconectandoconsuesencia.com da zure bloga. Zer adierazi nahi duzu izen horrekin?**

Minetik edo beldurretik (izan pertsonala nahiz kolektiboa) erlazionatzeari uztea, esentziara, gure izatearen sakonera eta gure benetako maitasunera iristea dago oinarrian. Iraganen sufritutako minaren arrastoa da min pertsonala, eta min kolektiboa, beriz, milaka urtean gizakion psikean batutako mina. Emakumearen mina gizonaren boterea jasatetik eratorria da, esklabotzaren ondorioa, bortxaketena, hainbeste ume erditzearena, umeak galdu... hori sentiitu, gero askatu ahal izateko. Patriarkatuaren herentziaz, emakumeak gure artean lehiatzen gara. Hori utzi eta elkarren artean babesten hasi behar gara, gure edertasuna, indarra eta boterea azalazteko.

◆ **‘Barnean duzun umea besarkatu’ tailerra eman zenuen Elgoibarren. Zertan datza?**

Hautzarroan helduen zaintza beharrezkoa dugu, eta zaintza horrek etorkizuna markatzen du. Asetutako beharrek eta ase gabek eragin handia dute gure helduaroan. Bizitzako lehen urteetan umea bere osotasunean bizi da, bere egiarekin. Barre egiten du, negar, beldur izaten da... Ez du lotsarik, ezta errudun sentimendurik ere, baina urteak aurrera joan ahala “ez egon triste, ez haserretu, horrela ez...” entzutean, onartua eta maitatua ez izatearen beldur izaten hasten da. Gutariko bakoitzak bere eran ikasi du min horretatik babesten, koraza bat sortuz. Baina gure barneko umeak, zauriez gain, indar handia dauka, sormena, berehalakotasuna... eta ezaugarri horiek hor daude, argitara irteteko zain. Gure gabeziak dauden leku berean dago gure potentzialtasuna. Gure barneko ume horri begiratu behar diogu, entzun eta maitatu, onartu eta zaindu behar dugu. Emakumeentzako tailer guztien helburua autoezagutza da. Gure burua onartzea, beste emakumeen lagun izatea, elkarrengan babestuz, maitatuz, elkarrenganako begirada goxo batekin, bizitzan benetako aldaketak izan ditzagun. Joseph Campbellen esaldi batekin bukatu nahiko nuke: “Utz ezazu planifikatuta ze neukan bizitza, zain duzun bizitzari heltzeko”.



▶ JOSEBA PONCE

'LUR ETA AMETS' FILMAREN ZUZENDARIETAKO BAT

Lur eta Amets neba-arreba bikien abenturetan oinarritutako filma Elgoibarrera iritsiko da domekan (Herriko Antzokian, 16:30ean). Euskal Herriaren historian barrena bidaia egitea proposatzen du Lotura Films-ek sortutako animaziozko filmak. Joseba Ponce eta Imanol Zinkunegik zuzendu dute filma eta Eneko Olasagastik eta Karlos Zabalak idatzi dute filmerako gidoia, aurrez Uxue Alberdi elgoibartarrak eta Unai Elorriagak *Lur eta Amets*en ipuin-sortarako idatzitako testuetan oinarrituta. Musika, berriz, Joserra Senperenak jarri dio.

- AINARA ARGOITIA -

"Gure historiako pasarteetan sakontzeko gogoia piztu nahi dugu"

◆ Proiektu zabalago baten parte da filma. Noiz eta nola heldu zenioten erronka honi?

2017ko urrian ekin genion Lotura Films-eko animaziozko film hau ekoizteko lanari, baina zeuk esan bezala, filma proiektu zabalago baten parte da. Haur eta gaztetxoek Euskal Herriaren historia kontatzeko material egokirik ez zegoela ikusi eta behar horri erantzuteko sortu zuten *Lur eta Amets*, *Euskal Herriko historia* proiektua Elkar argitaletxeak, Katxiporretak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean. Proiektu horren barruan sortu zituzten historia-dibulgazio liburua, ipuin-sorta, 12 urtetik gorakoentzako 1.500 galderaz osatutako mahai-jolasa, eta gaztetxoek aisialdirako atari digitala eta abestia. Juanba Berasategik koordinatutako ilustratzaile-taldeak egin zituen marrazkiak. Zerrenda horretara batzen azkenak izan gara gu, *Lur eta Amets* animaziozko film luzearekin.

2017ko urrian ekin genion filmari, baina, dena den, ia hasieratik gaude proiektu honetan, Lotura Films-eko egin genituelako *Lur eta Amets*, Euskal Herriko historia dibulgazio-libururako ilustrazioak ere. Orain sortu dugun filmak 87 bat minutuko iraupena du, eta otsailaren 7an estreinatu genuen.

◆ Aurkeztu itzazu *Lur eta Amets*, filmeko protagonista nagusiak.

Neba-arreba bikiak dira *Lur eta Amets*. Neska ausarta eta abenturazalea da *Lur*, geldi egoten ez dakien horietakoa, eta *Amets*, berriz, mutil ameslaria da. *Lur* baino beldurriagoa eta sentiberagoa da, eta irudimen handia du. Sortzailea da *Amets*. Amona Andere, berriz, asko dakien emakumea da, protagonista funtsezkoa filmean. Herriaren historia maite du, etsaiei azkar hartzen die tankera, asko daki eta asko dauka bilobei erakusteko.



Baltaxar katua Andererekin bizi da. Katu xaxatia da, eta azkura eragiten dituen galderak egitea gustatzen zaio.

◆ **Genero estereotipoak hausteko nahi bat igar daiteke pertsonaietan, ala?**

Bai, hasiera-hasieratik gainera. Ausarta neska da, Lur, eta bel-durtia eta sentibera, mutila: Amets. Estereotipoak amaitzeko ahal-egin edo keinu hori beste pertsonaje eta gertaera batzuetan ere badago. Historia euskarrietan bigarren plano batean agertu diren emakumeak argitara ateratzeko borondate hori hasieratik izan dute proiektuaren sustatzaileek, eta adibidez, industrializazio garaia fabrika bateko emakume langileen altxamendu baten bidez erakusten dugu.

◆ **Erronka handia da historia kontatzea eta are haurrei iristeko moduan kontatzea. Helburu didaktikoaz gain, zer beste helburu izan dituzue?**

Hitz potoloa da historia, eta erronka handia da historia kontatzea. Guk argi utzi nahi dugu ez garela historialariak, istorio kontalariak baizik eta saiatu garela istorio interesgarri eta entretenigarri bat sortzen, fikzioa baliatuta. Guri, Imanol Zinkunegiri eta biori, egina eman ziguten gidoia Karlos Zabalak eta Eneko Olasagastik. Uxue Alberdik eta Unai Eloorriagak idatzitako ipuinetan oinarritu ziren gidoia idazteko, baina beste pasarte batzuk ere sortu dituzte, filmak gidoi luzeagoa eskatzen duelako. Gidoi hori da guk animaziozko film batek derri-gorrez behar dituen ezaugarrietara ekarri duguna. Fikzioa da filmaren oinarria. Ez dugu historia bere horretan kontatzen. Lur eta Ametsek bizi dituzten abenturak dira filmaren oinarria, baina abentura horiek historiako garai desberdinetan gauzatzen dira. Haur eta gaztetxoengana iristeko produktu bat egiteko erronkari erantzun diogu guk. Aldi berean, gure ikusleengan irrika sortu nahi

“Fikzioa da filmaren oinarria. Ez dugu historia bere horretan kontatzen”

izan dugu, historiako pasarte horietan sakontzeko gogoia piztu. Guk ez ditugu izan beste batzuek izaten dituzten baliabideak filma sortzeko, baina esango nuke egindakoaren emaitza txukuna dela.

◆ **Bi urte eman dituzue filma sortzen. Nolako izan da sortze prozesua?**

Lan artisaua izan da gurea, eta bai, bi urtez ibili gara 70 bat lagun lanean. Marrazki guztiak eskuz egin behar dira eta lan gogorra izan da, baina gustura gaude emaitzarekin. Musika Joxerra Senperenak egin du eta aipagarria da egin duen lana. Erronka handia jarri genion Senperenari, musika garai bakoitzera egokitzea, eta lortu du bere estiloari uko egin gabe, musikarekin, musika erreferentzia handirik ez dugun garaietara eramatea ikuslea.

◆ **Zein publikorentzat egina dago?**

Ume guztiak ez dira berdinak, baina berez 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei zuzendutako filma da.

Hala ere, jakinda haur asko gurasoekin joango direla zinemara, helduentzako keinu batzuk ere egin dira filmean. Familian ikusteko produktu bat da. Ziurrenik txikiagoak ere joango dira zinemara eta agian horiek ez dira historian oso ondo kokatuko, baina uste dugu ez dutela filmaren haria jarraitzeko arazorik izango. Filma erraz ikusten dela esango nuke.

◆ **Zer nolako harrera izan du?**

Ona. Daturik ez daukagu, baina gustura gaude orain arte izandako harrerarekin.

◆ **Filmak ikuslea gehiagorako gogoz utziko duela irakurri genion Gontzal Agote Berrira egunkariko zinema kritikariari. Telesail bat egiteko aukera aipatzen zuen. Zer diozu?**

Etor daitekeela hori ere. Proiektuak ematen du horretarako aukera eta badago asmoa. Ikusiko dugu.

▶ MAITE HIGUERO SEXOLOGOA ETA GIZARTE LANGILEA

Maite Higuero (Bilbo, 1971) sexologoak 'Sexologia jubilosa' hitzaldia eman zuen martitzenean Jubilatuen Biltokian, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Sexologoa eta gizarte langilea da, eta sexologia kontsulta propioa dauka Donostian. Sexualitatea oinarri hartuta, hitzaldiak, formazio saioak eta tailerrak ematen ditu. Sexua, plazera eta desioa izan ditugu hizpide, besteak beste.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ 'Sexualidad jubilosa' hitzaldia eman duzu Elgoibarren. Zertan datza?

Hitzaldi honen helburua da adineko pertsonen edo helduaren sartuta daudenei sexurako aukera berriak azalaztea. Kulturak eta moralitateak sexurako mugak jartzen dizkiete adineko askori, eta beraien bizi izan duten kulturak ez die utzi sexua modu gozagarrian bizitzen. Horri gehitzen zaizkionean adinak berarekin dakartzan sexua egiteko zailtasun fisikoak askok erabat alboratzen dute kontu hau; sexuari uko egiten diote. Hitzaldiaren izenburuak berak sexua poztasunez bizitzeari egiten dio erreferentzia. Ez dezala inork pentsatu jubilatzearekin edo zahartzearekin batera sexua bukatu egiten dela. Zahartze osasuntsu baterako ezinbestekoak dira norbera asetuko duten bizipen erotikokoak. Gure aitona-amonak plazerezko bizitza sexuala zer zen jakin gabe hilko ziren seguraski. Egin behar zutena egingo zuten umeak edukitzeko, ilunpetan, eta isilik, baina gaur egun jubilatuz bizitza luzea da, aktiboa, osasuntsua, eta ezin dugu pentsatu jubilatuari zahartzea besterik ez zaiola geratzen. Egia da jubilatuz eta zahartzeak gabezia fisiko batzuk dakartzala berarekin, baina sexurako aukera asko daude. Askok ez dira hitzaldira etortzen, iruditzen zaielako gai hau ez dela beraiarentzat, baina hori gertatzen da sexua larrua jotzea dela ulertzen dugulako.

♦ Eta, zer da sexua?

Sexua organo genitalekin lotzen du



“Zahartzaroa sexu-aukera berriak bilatzeko aroa da”

jende gehienak, eta sexuaz hitz egiten hasten garenean, txortan egiteaz hitz egingo dugula uste dute gehienek. Sexologoek beti diogu sexua txortan egitea baino askoz gehiago dela eta organo genitalerantz harago doala. Hitzaldi hasieran beti esaten diet entzuleei organo genitalak askatzeko eta aulki azpian gordetzeko, ez ditugulako beharko. Harritu egiten dira, baina txantxa horrek lagundu egiten die hitzaldiaren testuinguruan sartzen. Hitzaldi amaieran gogorarazten diet berriz har dezatela aulki azpian utzi duten hori. Garrantzitsua da genitalen testuingurutik irtetea, sexuak eskaintzen dizkigun aukera guztiak ikusteko, bestela, gozamenarako aukera asko galduko ditugu. Sexurako or-

gano erotikoa azala da, eta azalak ez du inoiz bere funtzionalitatea galtzen. Zahartu egiten da, zimurrak agertzen zaizkio, baina ez du galtzen sentiarazteko ahalmena. Genitalek zahartzaroran ez dute gaztaroran bezala funtzionatzen, baina horrek ez du esan nahi sexua alboratu behar dugunik; disfuntzio hori aukera berriak bilatzeko aukera bezala ikusi behar da.

♦ Desioa nola aldatzen da adinarekin?

Beste pertsona batekin egoteko desioa beti egongo da, hori ez da desagertzen. Bakarrik bizi den jende asko dago gaur egun, emakumeak batez ere. Askok uste dute alargundu ondoren bakarrik egotea dela aukera bakarra, eta ez diote bere

buruari lagatzen beste pertsona batekin elkartzeko gogoia sentitzen ere, pentsatzen dutelako bi pertsona elkartzen direnean larria jateko dela. Baina bi pertsonen arteko elkartzeak harago doaz. Desioa izan daiteke besarkatzekoa, elkar ukitzekoa, muxu ematekoa, pasiatzera joatekoa, hitz egitekoa, gauza politikak esatekoa... Eta hortik aurrera, norberak nahi duenera arte luzatu daiteke desioa, eta baldintzak ematen badira, txortan egitera ere iritsi daitezke bi pertsona horiek. Baina ez dezagun utzi bidean dagoen aukera guztia, bukaerara iristeko aukerarik ez daukagulako. Puntu hau metafora batekin azaltzen dut nire hitzaldietan: Mendizalea denari beti gustatuko zaio mendira joatea, baina zahartzaroan 3.000 metroko mendien ordez, Txindoki, Adarra edo Herriora joan beharko du, edo agian lautadetan pasiatu beharko du, eta gainera makulua edo norbaiten laguntza beharko du bide horretan, baina oztopo horiez gain, ez da etxean geratuko mendira joan gabe. Sexuan gauza bera gertatzen da. Uko egingo diogu sexuari bukaerara ezin garelako iritsi? Bidean dagoen aukera zabala esploratu eta aprobetxatzen jakin behar dugu, eta askotan konturatu gabe iritsiko gara helmugara.

♦ **Alarguntasuna eta bakardadea aipatu dituzu. Heziketaren eraginez iruditzen zaizu askok uko egiten diotela beste bikotekide berri bat aurkitzeari alargundu ostean?**

Erabat, emakumeek bereziki. Alarguntzen direnean askok uste dute egin dutela egin beharreko guztia. Bizitza horrela uleritzen dute: ezkondu, umeak eduki, jubilatu eta hil. Erljiioak, kulturak, moralak... traba asko jartzen dizkigu, baina gure azalak eta gorputzak ez diote sentitzeaz utziko hil arte. Sexualitaterako beharra baino, sexualitaterako nahia daukagu gizakiok. Beharra hitza gainera gaizki ikusita dago sexuari dagokionez, eta sexu beharra duzula esaten baduzu, gaizki begiratuko zaituzte. Jatea modukoa da sexua. Askotan beharrik gabe jaten dugu, jateak plazera ematen digulako; jateko nahia dugulako jaten dugu askotan. Egia da jatea beha-

“Sexurako organo erotikoena azala da, eta ez du inoiz bere funtzionalitatea galtzen”

rrezkoa dela, jaten ez badugu hil egiten garelako, eta sexurik gabe ez da inolako hilketa, baina bizitza osasuntsu baterako lagungarria da. Eta ez naiz koitoaz ari. Nori ez dio laguntzen besarkada batek? Denori gustatzen zaigu maitatuak izatea, baina egia da adin batetik aurrera denek ez zaiela koitoa gustatzen. Horrez gain, zahartzaroak disfuntzio genitalak eragiten ditu: gizonezkoetan erektzioa lortzea gero eta gehiago kostatzen da, eta isurketara edo orgasmora iristea zaildu egiten da. Emakumeetan ere antzerakoa da egoera. Bajinaren zuntzak bigundu egiten dira, eta askoz sentiberagoa bilakatzen da organo hori, eta gehiago kostatzen zaio lubrikatzea. Horrek penetrazioari oztopoak jartzen dizkio, eta askori ez zaie atsegina egiten. Kontua da ordura arteko bikote harremana koitoan oinarritu bada, gero oso zaila dela sexua beste modu batean ulertzea, horregatik askok erabat baztertzen dute, uste dutelako ez dagoela beste aukerarik. Nire ustez, zahartzaroa sexu-aukera berriak bilatzeko aroa da. Nahi duenak behintzat, baditu sexurako aukerak, baina bere buruari horretarako baimena eman behar dio.

♦ **Gizonezkoek eta emakumezkoek desberdin ulertzen dute sexualitatea?**

Bai, bakoitzak bere ezaugarriak ditu, jaso duten heziketa eta kulturaren araberrakoak. Gizona funtzionalagoa da, aurretik joatea du gustuko eta amaierara heltzea da bere helburu nagusia. Emakumea prozesu luzeagokoa da, eta ez du horrenbeste amaieran pentsatzen. Mendiko beste metafora batekin azaltzen dut hau: emakumeak perretxiko bila joatea dugu gustuko. Lautadan ibiltzen gara, ingurua aztertzen, lorei begira, entretzen egiten gara, gelditzea gustatzen zaigu paisajeaz gozatzeko... Mendi puntara iristea ez da gure helburu nagusia. Irsten bagara, primeran, baina ez bagara iristen ere pozik gaude. Gizonari, aldiz, mendi puntara iristea gustatzen zaio, eta zenbat eta azkarrago, hobeto. Bi ezaugarri horiek konbinatu egin behar dira. Bestela zer, mendi puntara iritsi nahi ez dudalako ez naiz mendira joango?. Erdibideko bideak aurkitu beharko ditugu. Batzuetan bidegurutzean banatu eta bakoitza bere bidetik joango da, beste batzuetan emakumea mendi puntara iritsi beharko da, eta beste batzuetan, aldiz, gizona perretxiko bila geratu. Bizitza negoziatioan oinarritzen da alor guztietan, eta sexuan ere horrela izan behar da. Kontua da beste alor batzuetan erraz negoziatzen dugula, baina sexuaz hitz egiteak askotan lotsa ematen digu eta gidoian jartzen duena egitera mugatzen gara, gogorik ez eduki arren.



Jubilatuak Biltokian eman zuten hitzaldiko argazkia.



Asteazkeneko mahainguruan ateratako argazkia.

Martxoak 8ko programa bete-betea dator

Emakumeen Nazioarteko Eguna da domekan, eta horren harira egitarau zabala antolatuta dute Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak eta herriko hainbat eragilek elkarlanean. Joan zen barikuan zabaldu zuten *Aupa neska!* erakusketarekin ekin zioten Martxoaren 8aren harira antolatutako ekintzei, eta eguaztenez mahai-ingurua egin zuten Kultur Etxean, emakumea eta kirola binomioa gai hartuta. Pilar Arriola, Nerea Sasaiain, Amaia Ioiola, Arrate Zubia eta Ane Zabaleta kirolariak parte hartu zuten bertan, eta ordukoa da orri honetako argazkia. Era berean, eta joan zen asteke zenbakian aurreratu bezala, autodefentsa tailerren azken saioa egingo dute gaur kiroldegian, eta haize-errotak moreak, emakumeen egunerako kartela, kamisetak eta poltsak egiteko tailerrak izango dira gaur arratsaldez Ludotekan eta Gaztelekuan.

Biharko, berriz, Sustrai akordeoi taldearen kontzertua dago iragarrita. Kultur Etxeko Sotoan izango da kontzertua, 12:30ean, eta ondoren, izena emanda duten herriko emakumeek elkarrekin bazkalduko dute Sigma jatetxean. Domekarako, berriz, Martxa Morean parte hartzea deituta daude elgoibartarrak. Kalegoen plazatik abiatuko da martxa, 13:30ean, eta bukaeran, 14:00ak aldera, elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan. Elkarretaratzean Uluka Batukadak eta Biraka Dantza Taldeak parte hartuko dute. Biraka dantza taldekoek, gainera, koreografia ere prestatu dute domekarako (Elgoibarko Udalaren youtubeko kanalean zintzilikatuta dago nahi dutenek ikas dezaten).

Martitzenerako, hilaren 10erako, *Isiltzen joan zirenak*, Amelie ipuin kontaketa saioa antolatu dute Gotzon Garate Udal Liburutegiko lagunek helduentzat, eta Uluka Batukada taldekoek batukada entsegua egingo dute Maalan, 18:00etan. Beste hainbat herri-tako emakumeak etorriko dira Ulukakoekin batera jotzera, eta parte hartzea deitu dituzte elgoibartarrak. Eguaztenerako, berriz, Aro Modernoaren inguruko zikloaren barruan, Amaia Nausia historialariaren hitzaldia antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Udalak elkarlanean. *Emakumeen egoera Nafarroako konkistaren testuinguruan* izenburuko hitzaldia emango du Nausiak, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan. Leku berean, baina barikuan, hilaren 13an, zine-foruma izango da. *Un mundo libre* filma ikusi eta haren inguruan gogoetatuko dira zine-forumera batzen direnak.

Paul Lavertyk idatzi eta Ken Loachek zuzendutako filma da *Un mundo libre*. Drama da filma: aldi baterako kontratua duen langile batek salatuko du nagusiak sexu abusua egin diola eta horregatik enpresatik kaleratuko dute. Lanik gabe, etxeko bizilagunarekin batera enpresa propioa sortzea erabakiko du gero. Astelehenean, hilaren 16rako ere, zine-foruma dago iragarrita. *Bar Bahar, entre dos mundos* filma emango dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:00etan. Maysaloun Hamoudek zuzendutako filma da, eta sistema patriarkalaren kontra ari diren hiru neskaen borroka ari da:

Martxoaren 23rako azkenik, hausnarketarako saioa antolatu du Haizea Emakume Taldeak. *Zaintzatik norbere zaintzara* izenburua eman diote gogoeta-saioari eta Loredi Salegik gidatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 18:00etatik 20:00etara.

Narrutsiken programa

Elkartasuna gure arma izenburupean antolatu du Narrutsikek Martxoaren 8rako programa. Hasteko, bihar, domekan egingo duten manifestaziorako pankartak egingo dituzte Gaztetxean, 17:00etan hasita, eta gauerako Naniren kontzertua antolatu dute (22:30). Domeka eguerdirako manifestaziora deitu dute. San Lazaro egoitza parean hasiko dute, 12:00etan, eta bukaeran, Kalegoen plazan manifestua irakurriko dute. 14:30erako Tapperjana iragarri dute eta arratsaldean, 17:00etan, manifestazioan irtengo dira, berriro, Maalatik.

Elkarretaratzea eta herri-bazkaria, Mendaron

Mendaron, elkarretaratzera deitu du Tratu Onen Aldeko Taldeak domekarako. Elkartzeko deia 12:00etarako egin dute, plazan. Ondoren, 13:00etan, hala nahi duten herriko emakumeek elkarrekin bazkalduko dute jubilatuen ondoko lokalean (Etxetik eramandakoa jango dute). Bazkalostean dokumental bat proiektatuko dutela aurreratu dute eta filmaren inguruan hausnartuko dutela gero, taldean. Arratsalderako, berriz, Eibarren egingo den eskualde mailako manifestaziora elkarrekin joateko deia egin dute. 17:50eko tren hartuko dute Mendaron. Martxoaren 14an, berriz, *Susanaren iraultza* antzezlan ikusteko aukera izango da San Agustinen, 19:30ean. Sarrera doan izango da.

'Emakumearen egoera Nafarroako konkistaren testuinguruan' hitzaldia, eguaztenean

Elgoibarko Izarrak eta Udalak elkarlanean antolatu duten *Aro moderno: Euskal Herria mundura zabaltzen* hitzaldi zikloaren barruan, hitzaldia emango du Amaia Nausia Pimoulier historialariak eguaztenean, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan. XVI. mendean sortzen da estatu moderno. Aro modernoan botere politiko, militar, instituzional, erlijioso eta ekonomikoak zentralizatzea izango da helburua, prozesu adoktrinatzailerik eta diziplinatzailerik baten bidez. Emakumea bete-betean egongo da eraso horren jomugan, eta gizartean zuen espazioa galduko du. Hori guztia Nafarroaren konkistaren testuinguruan kokatuko du Amaia Nausiak eta azalduko du nola mugimendu horrek talka egin zuen Euskal Herrian emakumeek berezko zuten egoera juridikoarekin. Emakume kristau idealaren diskurtso berria, gure lurraldeetan hain garrantzitsua izan zen sorgin-ehiza, edo usadioz emakumeenak ziren ofizioek sufritu zituzten kolpeak ere aipatuko ditu.



Elgoibarko dantzariak, Oiartzungo Aurreku Txapelketan

Lezo, Amasa-Villabona, Anoeta, Legazpi, Oiartzun, Andoain, Lasarte, Asteasu eta Elgoibarko dantzariak parte hartu zuten Oiartzungo Aurreku Txapelketan. 2005-2006. urteetan eta 2007-2008 eta 2009. urteetan jaiotakoak lehiatu ziren bertan, tartean Elgoibarko Inazio Bereziartua eskolako lau dantzari: Malen Galarraga, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz eta Markel Goenaga. Hurrengo txapelketa Elgoibarren jokatuko dute, martxoaren 28an eta 29an. 28an, larunbatez, lehiatuko dira Malen Galarraga, Naroa Urrutia eta Nerea Galindo, A eta B sailetakoa (Herriko Antzokian, 16:00etan), eta domekan, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Markel Goenaga eta Aimar Almoriza lehiatuko dira leku berean, baina goizez (11:00etan).



'Zaldi Urdina' antzezlan, gaur zortzi, Elgoibarren

Artedrama, Axut eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiek sortutako *Zaldi Urdina* antzezlan Elgoibarren ikusteko aukera izango dugu gaur zortzi (Herriko Antzokian, 20:30ean). Ximun Fuchsek zuzendu du lana eta Unai Iturriaga eta Igor Elortzak idatzi dute gidioa. Horretarako, Justo Arriolaren *A los pies del caballo*, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eta *The Corner* telesaila izan dituzte, besteak beste, esku artean. Euskal Herrian drogak eta bereziki heroinak izan duen eraginaz dihardu antzezlanak, eta 1980ko hamarkadari lotzen bazaio ere, gaurko egoerari buruz hausnartzeko bidea ere ematen du.

Familian idatzitako liburu berria aurkeztuko du Ander Errastik barikuan

Errasti-De la Maza familiak *Herensugearen itzulera* izeneko liburu argitaratu zuen 2018an, eta bigarren atala ere kaleratu zuten iaz, Durangoko Azokarako: *Herensugearen itzulera V Sataripeko Guda*. Liburu horren aurkezpena gaur zortzi, martxoaren 13an, egingo dute Elgoibarren, Kultur Etxean, 19:00etan. Duela lau urte hasi zuten proiektua, familian, eta halaxe osatu dituzte testu eta ilustrazioak ere, familian. Orain, *Barren.euse*-ko Komunitatean ere irakurri ahal izango dira familia honek sortutako istorioak.

Santa Ana jaiak antolatzeko bilera antolatu dute gaurko Mendaron

Aurtengo Santa Ana jaietarako proposamenak egingo dituzten bilera irekia antolatu du Mendaroko Udalak gaur ilutzerako (19:00etan, Lagun Betikoak ondoko lekuan).

Motxaila Eguneko bertso saiorako eta bazkaritarako sarrerak salgai daude dagoeneko

Motxaila asteburua ospatuko dute martxoaren 13-14an Mendaron. Barikuan, bertso saioa izango da San Agustinen (22:00etan), eta sarrerak salgai daude Morroskillon eta Aitzbeltzen, 6 euroan. Uxue Alberdi, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Andoni Egaña ariko dira bertsoetan. Zaturako, ibilaldia antolatu dute Gaztetetik Aitzbeltzera (9:00etan). 11:00etan, ipuin kontalaria, poesia emanaldia, musika... izango dituzte leizean eta 15:00etan herri-bazkaria egingo dute Gaztetxean. Bazkaritarako txartelak salgai daude Lagun Betikoak tabernan. 18:00etan, berriz, poteo herrikoia hasiko dute Gaztetxean, Motxaila Band elektrotarangarekin eta gauean, 22:00etan aurrera, Munlet, Intzak Hik eta Belack taldeen kontzertuak izango dira Gaztetxean.

Emakume elgoibartarrek eta mendaroarrek ere hartu dute parte Lilatoirik jendetsuenean

Lilatoia lasterketa jokatu zuten martxoaren 1ean Donostiako kaleetan, eta ia 6.000 emakumek hartu zuten parte, inoiz baino gehiagok, horien artean 40 elgoibartarrek eta 11 mendaroarrek. Festa eta aldarrikapena nagusi den proba izanagatik, sailkapena ere badu. Izaro Rubio izan zen azkarrena 18:23ko denbora eginda. Antxitxikari ordiziarrek hirugarrenoz irabazi du Lilatoia, 2014koa eta 2017koa ere irabazi baitzituen. Gure ordezkarietako dagokionez, Ane Larrañaga Agirregomezkorta izan zen lehen sailkatua. Sailkapeneko 179. postuan ailegatu zen helmugara, eta 25 minutu eta 51 segundo behar izan zituen proba bukatzeko. Mendararren artean Mainer Vargas Perez (25:53) izan zen azkarrena. Elgoibartar eta mendararren emaitzak barren.eus-en.



Aiastian hasiko da bihar Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa

Gipuzkoako 51. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa Elgoibarko Aiastia auzoan hasiko da bihar, hilak 7. 17:00etan hasiko da tiraldia. Hamar jardunaldi izango ditu txapelketak, horietako bat leintz Gatzagako bolatokia estreinakoz. Azkoitiko Floreaga auzoko bolatokia jokatu dute azken jartialdia maiatzaren 30ean. Iaz, Angel Ibarluzea elgoibartar irabazi zuen txapelketa hau.

Andres Perez Kopako txapelkun Danobat Iriondo xake txapelketan

Danobat Iriondo xake txapelketaren 8. ekitaldiko Kopa txapelketako finala jokatu zuten martitzenean Iriondo tabernan. Andres Perez soraluzearrak irabazi zion finala Juan Manuel Navarro elgoibartarrari. Abenduan amaitu zen Liga modalitatean Felix Manso urnietarra izan zen irabazlea. Ligan 50 xakelari lehiatu ziren, hamar laguneko bost multzotan banatuta. Honakoak izan dira multzo bakoitzeko irabazleak: Markel Kerexeta (2. maila), Iker Ruiz (3. maila), Julen Agirre (4A maila), Jon Gurrutxaga (4B maila). Urdaiazpiko bat ere zozkatu zuten Kopako finala ikustera gerturatutakoen artean, eta Mikel Leonik tokatu zitzaion.

Juanan Galindo eta Arrate Iriondo gailendu dira Uztargi xake txapelketan

Mendaroko Otarre Xake Taldeak Uztargi tabernarekin elkarlanean antolatatu duen I. Uztargi Xake Aktibo Txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 1ean. Eguraldi ona lagun, Herriko Enparantzan jokatu zituzten Kopako zein Ligako finalak. Ligakoan Juanan Galindok eskuratu zuen titulua Eneko Egañari irabazita. Kopako finalean, berriz, Arrate Iriondok irabazi zion Garikoitz Hueguni. Otarre taldeak Uztargi tabernari eskerrak eman dizkio txapelketa antolatzeke emandako laguntzagatik. Xakearekin jarraituz, Mendaroko xake eskolako bi kidek, Danel Garcia eta Aimar Cambronerok, emaitza onak lortu dituzte eskolarteko xake txapelketaren lehen fasean, Deban. Garcia benjamin mailan lehiatu zen eta bigarren postua lortu zuen, lau partida irabazi eta bi galdu eta gero. Cambronero infantilekin lehiatu zen eta hirugarren postua eskuratu zuen, honek ere lau garaipenekin eta bi porrotekin. Domekan lehiatuko dira bigarren fasean.



Unai Zubeldiak irabazi du Valentin Romeraren Oroimenezkoa

Valentin Romeraren Oroimenezko Elgoibarko Hiria Saria txirrindularitza lasterketaren 40. ekitaldia jokatu zuten martxoaren 1ean. Junior mailako txirrindulariek 88 kilometroko ibilbidea osatu zuten eta erabat sakabana-tuta ailegatu ziren azken metroetara. Duela bi urtetik Mintxetan hasi eta amaitzen dira Lagunak Txirrindulari Eskolako antolatutako lasterketak, eta bistan da ikuskizuna ematen duen amaiera dela, 600 metro eta batez beste % 6,5ko pendiza duen aldapa gogorra egiten baitzaie txirrindulariei. Iñaki Errazkinek (Donosti Berri Elkartea) metro batzuetako alde zuen aldaparen azken zatian, baina indarrez hustu egin zen abantailari eusteko ahaleaginean, eta azken errebutan hartu zion aurrea Unai Zubeldiak (Limousin Oriako), irabazleak. Errazkinen taldekide Alexander Fernandezek eskuratu zuen hirugarren postua. Irabazleak 39,565 kilometro orduko batez besteko abiadura osatu zuen proba. Guztira 65 txirrindularik lortu zuten proba bukatzea, horien artean Elgoibarko Lagun Taldeako bi kidek, Beñat Fernandez Loiolak eta Jokin Amorrosta Arriolak. Mendiko saria Unai Zubeldiak irabazi zuen, eta Ampo taldeak taldekakoa.



Mintxetako infantil nesken taldea Euskadiko txapelkun krosetan

Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketa jokatu zuten martxoaren 1ean Murgian, eta Mintxeta Atletismo Taldeko antxitxikariek emaitza bikainak lortu zituzten. Batetik, infantil nesken taldeak lehen postua eskuratu zuen taldekako sailkapenean. Honako saltakariak osatu zuten taldea: Ane Agirregomezkortak, Laiene Irao-lagoitiak, Nere Arregik, Helene Zubizarretak, Nora Treviñok eta Eider Carok. Bestetik, Anwar El Hassouni Benaissa elgoibartarrak seigarren egin zuen infantil mutilen lasterketan, Gipuzkoako selekzioa ordezkatzuz, iaz lortu zuen postu berbera, hain zuzen ere. El Hassouni Gipuzkoako txapelkunordea da krosetan, bigarren egin baitzuen joan den otsailaren 16an Hernanin jokatu zuten txapelketan.



Iker Calvok Espainiako Txapelketarako gutxieneko denbora egin du

Erkidego arteko Espainiako igeriketa txapelketan lehiatu zen Iker Calvo joan zen asteburuan Oviedon, alebin mailako euskal selekzioarekin. Lau probatan lehiatu zen igerilari elgoibartarra eta guztietan lortu zuen Espainiako Bakarkako Igeriketa Txapelketarako gutxieneko denbora egitea. Bartzelonan jokatuko dute, uztailaren 17tik 19ra bitartean. Txapelketetan hazi egiten dela erakutsi zuen Calvo Oviedon, lehiatu zen lau probetan ondu baitzuen bere marka pertsonala.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Ospitalean gauak pasatzeko ere prest. Orduka. Berehala hasteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldeetan eta asteburuetan. ☎ 631 081 501

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldeetan. ☎ 638 857 100

26 urteko neska naiz, euskalduna eta arduratsua. Umeak zainduko nituzke arratsaldez. ☎ 636 193 759

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 632 330 597

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest. ☎ 643 856 598

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, arratsaldez. Esperientziaduna. Ospitalean edo asteburuetan etxeko langile aritzeko prest. ☎ 688 959 575

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburuetan ere bai. Paperak legez ditut eta osasun zaintzarako beharrezko titulua ere badaukat. ☎ 688 724 060

Eskaintzak

Hortz klinika baterako auxiliarrak behar da, amatasun baxa bat betetzeko. Interesatuak utzi mezu bat erantzungailuan. ☎ 943 742 919


Heldu bati euskara irakasteko irakasle partikularra behar da. ☎ 650 601 301 (Victor)

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Jausoro plazan, udaletxetik gertu. Oinezkoentzako sarbidea dauka. ☎ 672 422 237

BESTELAKOAK.....

Offiprix markako sei mahaiko mahai multzoa salgai. Oso egoera onean. 600 euro. ☎ 688 634 044



Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar
SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com
943 744 457

UMEEN HILABETEA

- ❖ Lastairak %30
- ❖ Panpinak %40
- ❖ Mantak eta izarak %40
- ❖ Burkoak eta ohe babesleak %15



Lastaira, 15° dituen tako anatomikoa eta zilindro ez-labaingarriak.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Erregeko Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko etxebizitearen batzordean hormak margotzea eta ganbara-guneko zoruak konpontzea adostu genuen, urteen eraginez egoera txarrean dagoelako. Beheko lokalaren jabeak uko egin dio obran laguntzeari, bere lokalak ez duelako aterik edo eskailera-rako sarbiderik. Deskribatutako obretan laguntzeko betebeharra duen jakin nahi nuke.

Elementu komun bat ez erabiltzeak ez du esan nahi jabeak konponketa edo mantentze lanak ordaintzen lagundu behar ez duenik. Horregatik, bere partaidetza-kuotari dagokion zatian ordaindu beharko du.

Indarrean dagoen araudiak ezartzen duenez, ekarpenak egiteko betebeharrari buruzko arauak aplikatzeko, orokortzat hartuko dira pisu edo lokal bati edo batzuei egotzi ezin zaizkien gastuak, eta zerbitzu bat ez erabiltzeak ez du salbuetsiko dagozkion betebeharrak betetzetik, eskatu ezin diren berrikuntzak egiteko ezarritako erregulazioari kalterik egin gabe.

GOMENDIOA. Komunitatearen harmonia hausten duten iritzidesberdintasunetan sartu aurretik, komeni da komunitateko dokumentazio guztia arretaz aztertzea, kasu edo lokal jakin batzuetarako salbuespenen bat dagoen zehazteko. Horrelako klausularik ez badago, jabeakide guztiek ordaindu beharko dituzte elementu komun konponketa-lanak, bai erabiltzen badituzte, bai erabiltzen ez badituzte, baita horietarako sarbide zuzenik ez badute ere, esaterako, atarira sarbiderik ez duten etxabe batzuen kasuan.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak zure hirugarren urtebetzean, neska handi! Ondo pasa eguna eta patxo pila bat zure familiakoen partez.



Zorionak, **Jone!**, Badituzu 7 urte da goeneko! Muxu pila bat eta besarkada handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Mikel**, zure 11. urtebetzean. Maite zaitugu!



Zorionak, **Patxi eta Julen**, mar txoaren 5ean eta 6an urteak bete dituzelako. Muxu eta besarkada handi bana, etxeko guztion partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila altua izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Hezkuntza Premia Behar Bereziako ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabeko merituen ere baloratuko zaizkie.
- Datak: apirilaren 24an; arratsaldean, eta 25ean; goizean.
- Hautatuek oinarrizko prestakuntza-asteburu batean hartu beharko dute parte maiatzaren 23an eta 24an.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Martxoak 18, asteazkena

Non eta nola: www.elgoibarkoizarra.eus
+ 943 741 626
+ kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

Artezteko makinen fabrikaziorako Elgoibarko enpresa batek (Doimak S.A.) proiektuak kudeatzeko pertsona behar du lantalderako

BALDINTZAK:

- Ingenieritza mailako prestakuntza (ingeniaritza teknikoa edo goi mailakoa).
- Elektronika, programazioan eta mekanikan oinarrizko ezagutza izatea.
- Ezinbestekoa ingeleza ondo menperatzea.
- Ezinbestekoa kanpora bidaiatzeko prestutasuna izatea.
- Berehala lanean hasteko.
- Ez da beharrezkoa aurretiaz esperientzia izatea.
- Interesatuek bidali curriculumak: webmaster@doimak.es.

6 BARIKUA

17:00 / 19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia. 'Bizi dantza'. Herriko Antzokian.

7 ZAPATUA

10:00 Herri kirolen eguna, Mendaron, herriko ikasleen eta haien familientzat. Frontoian

11:00 - 14:00 Txankakuaren stock feria. 14:00etan 600 euro zozkatuko dituzte, erosketa bonotan. Saria jasotzeko ezinbestekoa da bertan egotea.

8 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Juanma Saez Etxabe.

Egitaraua:

1. *Ben Al Sahagui*. F. Valor.
2. *Egmont* (Obertura). L.V. Beethoven.
3. *The Beatles: Love*. Arr. J. Bocook.
4. *Arizona*. F. Cesarini.
5. *The girls of jobim*. Arr. M. Schneider.

11 EGUAZTENA

19:00 Inazio Bereziartua musika eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

12 EGUENA

19:00 Inazio Bereziartua musika eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

13 BARIKUA

20:30 Antzerkia: 'Zaldi urdina'. Herriko Antzokian.

22:00 Motxailen aterpea bertso saioa. Uxue Alberdi, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Andoni Egaña ariko dira kantuan. Gai-jartzailea: Maialen Olazabal.

MARTXOAK 8

6 BARIKUA

18:00 Autodefentsa tailerra emakumeentzat. Olaizaga kiroldegian.

7 ZAPATUA

9:30 Autodefentsa tailerra, emakumeentzat. Olaizaga kiroldegian.

12:30 Kontzertua: Sustrai akordeoi taldea. Kultur Etxeko sotoan.

14:45 Emakumeen bazkaria eta dantza saioa Sigma jatetxean.

17:00 Manifestaziorako kartelak egitea, Elgoibarko Gaztetxean.

22:30 Kontzertua Elgoibarko Gaztetxean, Narrutsikek antolatuta: Nani.

8 DOMEKA

12:00 Elkarretaratzea Mendaron, Herriko Enparantzan, Tratu Onen Aldeko Taldeak deituta.

12:00 Manifestazioa Elgoibarren, San Lazaro egoitzatik, Narrutsik talde feministak antolatuta. Ondoren, manifestua irakurtzea Kalegoen plazan.

13:00 Emakumeen bazkaria eta zine-foruma, Mendaron, jubilatuen ondoko lokalean (etxetik eraman behar da jatekoa).

13:30 Martxa morea. Kalegoen plazatik abiatuta.

14:00 Elkarretaratzea. Kalegoen plazan. Uluka batukada eta Biraka dantza taldearekin.

14:30 Tupperjana, Maalako parkean Narrutsikek antolatuta.

17:00 Manifestazioa Narrutsikek antolatuta, Maalatik.

10 MARTITZENA

19:00 Helduentzako ipuin kontalaria. 'Isiltzen joan zirenak'. Amelie.

10 MARTITZENA

18:00 Batukada. Uluka batukada feministak, Maalako parkean.

11 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldia: 'Emakumearen egoera Nafarroako konkistaren testuinguruan'. Amaia Nausiak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13 BARIKUA

21:30 Zine foruma: 'Un mundo libre'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

 **BARREN sare sozialetan**



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
6 BARIKAKUA	7 ZAPATUA	8 DOMEKA	9 ASTELEHENA	10 MARTITZENA	11 EGUAZTENA	12 EGUENA	13 BARIKAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Arriola	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean -	Iluntzean -	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Zinea (Herriko Antzokian)

'Hasta que la boda
nos separe'

7 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
8 domeka: 19:00
9 astelehena: 21:30

'Lur eta Amets'

8 domeka: 16:30

'Mi pequeño gran samurai'

(Ongarri zinekluba)
12 eguena: 21:30

Otsaileko hildakoak

- **Justino Badiola Arakistain** 77 urte, otsailak 4
- **Mercedes Juez Lopez** 77 urte, otsailak 4
- **Marceliano Diez Tejedor** 74 urte, otsailak 8
- **Luis Mari Iriondo Garate** 88 urte, otsailak 11
- **Fermin Zurriarain Ibañez** 77 urte, otsailak 16
- **Fernando Alonso Aguayo** 76 urte, otsailak 19
- **Carmen Conejo Suarez** 79 urte, otsailak 20
- **Antonio Regil Irureta** 95 urte, otsailak 25
- **Jose Antonio Perez Ugarte** 61 urte, otsailak 25



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



1965

Udaleko Berdintasun Sailak eta Haizea Emakume Taldeak elkarlanean antolatu duten *Aupa neska!* erakusketatik hartu dugu aste honetako argazki zaharra. Lerunen eginda dago argazkia, 1965. urtean, eta zortzi lagun ageri dira argazkian, saltaka. Hona hemen protagonisten izen-abizenak, bigarrenetik hasita, ez baitugu lehenengoa identifikatzeko modurik izan: Jose Luis Oria, Maria Antonia Artetxe, Arrate Diego, Maite Unzueta, Lourdes Luko, Fernando Uriarte eta Maria Angeles Urain.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkiak baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:
barren@elgoibarkoizarra.eus
 Barreneko bulegora ekarri:
Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.





I. URTEURRENA

Juanjo Cruz Godoy

2019ko martxoaren 3an hil zen, 56 urte zituela.

***Ni joaterakoan luzatu zure eskua,
eta nirekin egonen zara bihotzez.
Nahiz eta ni ez ikusi, nahiz eta ni ez ukitu,
jakinen duzu betiko zure alboan egonen naizela.
Egun batean pozez eta irribarrez jakinen duzu
ez joateko etorri nintzela.***

Zure anai-arrebak, koinatu-koinatak eta ilobak



I. URTEURRENA

Aureliana Gallego Soto

"Nana"

2019ko martxoaren 7an hil zen, 83 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
martxoaren 8an, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.***




III. URTEURRENA

Justo Arriola Zubiaurre

2017ko martxoaren 7an hil zen, 89 urte zituela.

***Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.***

Etxekoak



▶ Gremioen gida

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-Of/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

MAR

ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



Aroztegia Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tienda@pagoagasa.com

ELGOIBAR



San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cld: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK



Errosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

- ▶ Igeltseritza
- ▶ Pintura

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,

ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO

LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

- ▶ Leihoak
- ▶ Iturgintza
- ▶ Elektrizitatea

- ▶ Aroztegiak
- ▶ Erreformak